



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 22a

64. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egin (2.or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2008ko azaroaren 17an eginiko bilkuran, erabaki zuen Comptos Ganberak Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruz egindako fiskalizazio txostena, 2005eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **Nafarroako Odol-transfusioen Zentroari buruzko fiskalizazio txostena, Comptos Ganberak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p>  I.1. Mandatua (3. or.).</p> <p>  I.2. Informazio orokorra (3. or.).</p> <p>    I.2.1. Odol-ematea (3. or.).</p> <p>    I.2.2. Zelulak eta ehunak (4. or.).</p> <p>    I.2.3. Araudi aplikagarria (4. or.).</p> <p><b>II.</b> Helburuak, norainokoa eta mugak (5. or.).</p> <p><b>III.</b> Ondorio orokorra (6. or.).</p> <p><b>IV.</b> Oharrak, ondorioak eta gomendioak (7. or.).</p> <p>  IV.1. Odol-ematearen eta CTSNren kudeaketa eta funtzionamendua (7. or.).</p> <p>    IV.1.1. Plangintza eta programazioa (7. or.).</p> <p>    IV.1.2. Antolakuntza, plantilla eta langileen egoera (7. or.).</p> <p>  IV.2. Odol-ematearen kostuak (10. or.).</p> <p>  IV.3. Finantzen eta aurrekontuaren kudeaketa (10. or.).</p> <p>  IV.4. Odol emileen elkarte (Adona) (13. or.).</p> <p>  IV.5. Baimenak, Ziurtagiriak eta Auditoriak (14. or.).</p> | <p>  IV.6. Aztertutako prozesuei buruzko oharrak eta gomendioak (14. or.).</p> <p>  IV.7. Odol-emateen eta transfusioen kudeaketa Foru Komunitate osoan (16. or.).</p> <p>  IV.8. Laborategia eta analisisa (16. or.).</p> <p>  IV.9. CTSNren Informazio eta Kudeaketa Sistema (17. or.).</p> <p>  IV.10. Zelulen eta Ehunen Kudeaketa eta Funtzionamendua (18. or.).</p> <p><b>ERANSKINAK</b></p> <p>I.1. eranskina CTSNren organigrama (2007-XII-31) (20. or.).</p> <p>I.2. eranskina. Plantilla (21. or.).</p> <p>I.3. eranskina. Plantilla osoa (22. or.).</p> <p>I.4. eranskina. Odol Bankuko plantilla organikoen eboluzioa 2002-2007 artean (23. or.).</p> <p>I.5. eranskina. Absentismo-indizea (24. or.).</p> <p>I.6. eranskina. Plantilla organiko ofizialeko plaza hutsak (26. or.).</p> <p>II.1. eranskina. Odol-ematea eta odol- eta hemo-deribatu-produkzioa Nafarroan 1993-2007an (27. or.).</p> <p>II.2. eranskina. Nafarroako odol-ateratzeak 2006-2007 artean, hilabete, mota eta zonaldeen arabera (29. or.).</p> <p>II.3. eranskina. Espainiako odol-emateei buruzko estatistika (31. or.).</p> <p>III.1. eranskina. Odol-produktuen banaketa 2005-2007 artean Nafarroan eta kanpoan (32. or.).</p> <p>III.2. eranskina. Odol-produktuen banaketa 2006-2007 artean / CTSN (33. or.).</p> <p>III.3. eranskina. Hematie-kontzentratuaren banaketa 2001-2007an (CH) (35. or.).</p> <p>III.4. eranskina. Plasmaferesi sekurizatuaren banaketa 2000-2007an (PFS) (36. or.).</p> |
|--|--|

- IV. eranskina. Gastuen eta sarreren eboluzioa (38. or.).
- V. eranskina. Prozesuen mapa (39. or.).
- VI.1.A. eranskina Emaileak, sexuaren arabera (CTSN) (40. or.).
- VI.1.B. eranskina Emaileen dataren araberako banaketa (CTSN) (40. or.).
- VI.2. eranskina. Erregistratutako emaileen eboluzioa (urtean aktiboak) 2000-2007 bitartean (42. or.).
- VII.1. eranskina. CTSN laborategiaren jarduera: errutinakoa eta HLA, 2001-2007 bitartean (42. or.).
- VII.2. eranskina. HLA laborategiaren jarduera 2007an (44. or.).
- VII.3. eranskina. REDMOren jarduera 2001-2007 artean. HLA laborategia (44. or.).
- VIII. eranskina. Zelulen eta ehunen baimenen taula laburtua (46. or.).
- Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak aurkeztutako behin-behineko txostenari eginko alegazioak (49. or.).
- Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuak aurkeztutako behin-behineko txostenari eginko alegazioei emaniko erantzuna (49. or.).

## I. SARRERA

### I.1. MANDATUA

2007ko otsailaren 19an eginiko saioan, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki bat onetsi zuen, ARALAR parlamentu-taldeak eskaturik eta idatziz zehazturik 2007ko otsailaren 12an, Nafarroako Comptos Ganberari eska zekion fiskalizazio-txosten bat egin zezan Nafarroako Odol-transfusioen eta Zelulen eta Ehunen Zentroaren funtzionamenduari eta kudeaketari buruz.

Eskari hori betetzeko, Nafarroako Comptos Ganberak arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, 2007ko lan-programan sartu zen fiskalizazio-txosten hori.

### I.2. INFORMAZIO OROKORRA

Jarraian laburki deskribatuko dugu nola antolatu diren aztertutako zerbitzuak eta alorrak –odol-ematea eta zelulak eta ehunak– eta zein araudi aplikatzen zaien.

#### I.2.1. Odol-ematea

– Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa (CTSN) da Osasun Eskualdeko Komunitatearen Transfusio Zentroa, eta Tuterako Hemoterapia Unitatea integratzen du. Unitate mugikor bat dauka (autohemoteka), "in situ" erantzun ahal izateko Nafarroako herrietako biztanleen odol-eskaintzei.

Lehen, Nafarroako Odol Bankua zuen izena eta laguntza-zerbitzu bat da, 1947an hasia, Nafarroako Osasun Institutuko Hematologia eta Hemoterapia Atal moduan.

Gaur egun Osasunbideari atxikita dago, Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren mende dago, eta funtzionalki Kudeaketaren mende, egitura hori onetsi baitzuen uztailaren 3ko 45/2004 Foru Dekretuak, Osasunbidearen estatutuak onesten zituenak.

Egoitza nagusia Nafarroako Ospitalearen lursailetan dago.

Jarduera nagusia odolaren inguruan doa, eta Nafarroako Foru Komunitateko ospitale publiko eta pribatuetan odol-produktuen premiak estaltzea da. Era berean, behar hainbat plasma fresko sortzeaz arduratzen da, jatorri industrialeko hemoderibatu plasmatikoen eskaerari erantzuteko Osasunbidearen mendeko zentroetan.

– Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroko Zuzendaritza arduratzen da Transfusio Zentroaz eta, ondorioz, uztailaren 3ko 45/2006 Foru Dekretuan Zentroari egozten zaizkion zereginak betetzen ditu.

– Langileak: 2007ko ekainaren 30ean 57 pertsona ditu CTSNko postu zuzenetan, eta horietatik %80 administrazioaren A eta B mailakoak dira. Zuzendari Tekniko bat dago, Zerbitzuburu bat, Atalburu bat eta bi Unitateburu.

Bestalde, 57 postu horiez gain CTSNko administrazio orokorraren zeharkako postuak daude, batez ere Kudeaketa Zuzendaritzakoak. Horrek CTSNren eta Laguntza Espezializatu guztiaren administrazio-ardurak ditu (kontabilitatea, diruzaintza, obrak eta mantentze-lanak), bai eta erosketen, langileen eta informatikaren ardura ere.

CTSNren organigrama agertzen da 1. eranskinan. Taula honetan lan-alorren arabera banaturik agertzen dira langileak, 2007ko ekainaren 30ean.

Zenbat pertsona lan-alor bakoitzean:

Kategoria	Tutera		Iruña						
	Odol-ateratzea	Administ. alorra	Zuzendaritza	Odol-ateratzea /kontsulta	Laborategia/banaketa	Unitate mugikorra	Administ. alorra	Zerbitzu orokorrak	Orok., guztira
OLTak	2			12	4	4			22
Administrariak		1					1		2
Osasun-laguntzaileak				1	1				2
Administrazio-laguntzaileak							2		2
Erizaintzako laguntzaileak					2				2
Zuzendaria			1						1
Zerbitzu aniztetako langileak							1	2	3
BFEak					3				3
Laguntza Ataleko Burua			1						1
Laguntza Zerbitzuko Burua			1						1
Administrazio Unitateko Burua			1						1
Erizaintza Unitateko Burua			1						1
Medikua	1			2		1			4
UETak					12				12
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>5</b>	<b>15</b>	<b>22</b>	<b>5</b>	<b>4</b>	<b>2</b>	<b>57</b>

Data horretan Odol Transfusiorako Zentroan lan egiten zuten 57etatik 28 finkoak dira, eta gainerakoak aldi baterako kontratatuak. Plaza hutsak 16 dira 2006ko abenduaren 31n, horietatik 5 eskaintza publikoan daude, eta 6k lanpostu-erreserba dute.

CTSNk, gainera, gidari bat erabiltzen du auto-hemotekarako, eta organikoki eta aurrekontuari dagokionez Justizia eta Barne Departamentuko Segurtasun eta Trafiko Plangintza eta Koordinazio Zerbitzuaren mende dago.

### 1.2.2. Zelulak eta ehunak

Odolarekin ez bezala, Foru Komunitatean ez zaio inongo organismo edo zerbitzuri esleitu zelulen eta ehunen banku-lanak zentraliza ditzan. Foru Administrazioaren lan-ildoak izan da agertu ahala premiei erantzutea, hala nola baimenak ematea ospitaleek jarduketa jakinak egin ditzaten, eta lan-kidetzak hitzarmenak sinatzea beste erakunde batzuekin.

Osasun Departamentuak aurrera eramaniko jardueren azterketa zehatza dator txosten honen VIII. eranskinean.

### 1.2.3. Araudi aplikagarria

Lege- eta erregelamendu-xedapen hauek osatzen dute, nagusiki, araudi aplikagarria:

Kudeaketari eta funtzionamenduari dagokionez:

- 45/2006 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Osasunbidearen estatutuak onesten dituena.

- 123/2007 Foru Dekretua, irailaren 3koa, aurreko 45/2006 Dekretuak onetsiriko Osasunbidearen estatutuak aldatzen dituena.

- 252/2002 Foru Dekretua, irailaren 16koa, Nafarroako Hemozaintza Sistema ezartzen duena, eta uztailaren 1eko 199/1988 Foru Dekretua aldatzen duena.

- 214/1997 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, Zentroen baimenak arautzen dituena.

- 22/2005 Foru Agindua, martxoaren 17koa, Osasun kontseilariarena, Osasunbideko informazioaren segurtasun eta babeserako Aholkularitza Batzorde Teknikoa sortzen duena.

- 5/2008 Foru Agindua, urtarrilaren 17koa, Osasun kontseilariarena, odol-emateen erregistroko fitxategi informatizatua sortzen duena.

- 14/1986 Lege Orokorra, apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa.

- 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoa.

- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa.

- 994/1999 Errege Dekretua, ekainaren 11koa, datu pertsonalen fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien araudia onartzen duena.

- 1720/2007 Errege Dekretua, 2007ko abenduaren 21ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoa garatzeko Araudia onartzen duena.

- 1088/2005 Errege Dekretua, irailaren 16koa, odola ematearen eta transfusio-zentroen eta -zerbitzuen gutxieneko betekizun teknikoak eta baldintzak ezartzen dituena.

- 1301/2006 Errege Dekretua, azaroaren 10ekoa, kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituena giza zelulak eta ehunak eman, lortu, ebaluatu, prozesatu, zaindu, gorde eta banatzeko, eta horiek gizakiekin erabili ahal izateko koordinazio- eta funtzionamendu-arauak onesten dituena.

- 1343/2007 Errege Dekretua, urriaren 11koa, transfusio-zentroen eta -zerbitzuen kalitate-sistemari buruzko arauak eta zehaztapenak ezartzen dituena.

- 1277/2003 Errege Dekretua, urriaren 10ekoa, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen baimenari buruzko oinarri orokorrak ezartzen dituena.

- CSO/322/2007 Agindua, otsailaren 9koa, odolaren eta odol-osagaien erreakzio eta ondorio kaltegarri larrien trazabilitate- eta jakinarazpen-betekizunak ezartzen dituena.

- 2002/98/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, giza odola eta bere osagaiak ateratzeko, egiaztatze, tratatzeko, biltegitatzeko eta banatzeko kalitate- eta segurtasun-arauak ezartzen dituena, eta 2001/83/EE Zuzentaraua aldatzen duena.

- 2004ko martxoaren 22ko 2004/33/EE Zuzentaraua, Batzordearena, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen diena odolaren eta odol-osagaien betekizun tekniko batzuei.

- 2005eko irailaren 30eko 2005/61/EE Zuzentaraua, Batzordearena, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen diena trazabilitate-betekizunei eta ondorio kaltegarri larriei.

- 2005eko irailaren 30eko 2005/62/EE Zuzentaraua, Batzordearena, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2002/98/EE Zuzentaraua aplikatzen diena odol-transfusioen zentroentzako kalitate-sistema baten arau eta zehaztapen komunitarioei.

Administrazio-kontratazioaren alorrean, ekainaren 16ko 10/1998 eta ekainaren 9ko Foru Legeak, Nafarroako administrazioen kontratuei buruzkoak.

Txostena lau ataletan banatua dago, eta horietan, xedeaz eta aplikatutako metodologiaz gainera, agertzen dira ondorio orokorra, aztertutako alor bakoitzean ateratako ondorioak eta emandako gomendioak.

Kapitulu hauek zortzi eranskinekin osatzen dira, eta bertan agertzen da zerbitzuen organigrama, lanpostuen zerrenda, jardueren eboluzio estatistikoa, gastuen eta sarreraren eboluzioa, CTSNko prozesuen eta elkarloturen mapa, HLA laborategiaren jardura eta zelula eta ehunetako jarduketaren taula laburtua.

Azterketa-lana auditore batek eta auditoriako bi teknikariek osatutako talde batek egin du, 2007ko azaroaren 27tik 2008ko martxoaren 18ra bitartean. Era berean, Comptos Ganberaren zerbitzu administratiboan, juridikoen eta informatikoen laguntza izan dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu CTSNko langileei, Laguntza Espezializatuko Kudeaketa Zuzendaritzako langileei, Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuko eta Araubide Juridikoaren Zerbitzuko langileei, Osasunbideko langileei eta Osasun Departamentuko Osasun Laguntzako langileei, lan hau egiterakoan emaniko laguntzagatik.

## II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Auditoria bat egin zaie Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren funtzionamenduari eta kudeaketari, hemoderibatutako eta odol-produktuak lortu, banatu eta hornitzeari, eta giza ehunen zaintza eta kudeaketari, eta beren kontrola, destinoa, erabilera, donazioa eta kudeaketa publikoarekin lotutako alderdiei. Eginiko lanak helburu hauek ditu:

1. Egiaztatzea ea odolaren, produktu hemoderibatuen eta zelula eta ehunen premiak estaltzeaz arduratutako zerbitzuen funtzionamenduak eta kudeaketak betetzen dituzten ezarritako betekizun teknikoak eta baldintzak, eta kalitate-sistema bati jarraitzen dioten, indarreko araudia aplikatuz.

2. 2006ko aurrekontuen gauzatzea aztertzea, eta egiaztatzea ea aurreztutako kontuetan agertzen ote diren gastu eta sarrera egozgarriak; betiere, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipioak eta -arauak aplikatuz, batik bat espezifikotasun- eta urterokotasun-irizpideak.

3. Egiaztatzea ea Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroaren jardura ekonomiko eta finantzarioak legezkoitasun-printzipioa errespetatzen duen.

Aurrekontu- eta ekonomia-kudeaketaren azterketa 2006an hasitako edo egindako espedientee-tan zentratu da; urte horri buruzko aurrekontu-informazioa auditoriaren hasieran dago.

Kudeaketa-prozesu, -betekizun eta -baldintzei dagokienez, 2006. eta 2007. urteak fiskalizatu dira nagusiki; urte horietan, kalitatea kudeatzeko ereduak garatu ziren, indarreko araudia aplikatuta.

Fiskalizazioaren barruan prozesuen azterketa mugatu bat egin da, eta V. eranskinean jaso da. Azterketa honetan dator auditoreek eta ikuskariek egindako lanen eta txostenen azterketa, batik bat bertako oharrak eta emaitzak, kanpo-auditoreen talde bati eta CTSNko arduradunei eta langileei egindako elkarrizketak, eta egungo egoeraren "in situ" egiaztapena. Ez dugu laginik hartu odolaren eta odol-osagaien kalitate-betekizunak bete diren aztertzeko, eta ez ditugu frogatu teknikariek egindako egiaztapenen kalitatea eta egokitasuna, ez eta laborategiko frogen emaitzak ere.

Hona hemen mugak:

- Erabilitako aurrekontu- eta kontabilitate-sistemak ez du berariazko informazio osorik ematen Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroari egotz dakizkiokeen gastu guztiei buruz eta aztertutako prozesuei buruz, eta ez du uzten zuzeneko eta zeharkako gastuen ebaluazioa egiten.

- Aztertutako denbora-tarte horretan ez dago emaileen gogobetetze-inkestarik, ez eta erabiltzaile eta azken hartzaileen gogobetetze-mailari buruzko ebaluazio metodikorik ere, eta beraz, ezin da neurtu zerbitzuen eta prestazioen kudeaketa, jarduketa horren eraginpean dauden hirugarrenen ikuspuntutik.

### III. ONDORIO OROKORRA

Parlamentuaren eskaerari eta planteatutako fiskalizazioaren helburuei dagokienez, hona Compotos Ganbera honen ondorioak:

1.- Odol-ematearen eta CTSNren kudeaketari eta funtzionamenduari dagokienez, CTSNk Foru Komunitateko odolaren eta produktu hemoderibatuen premiak betetzen ditu. Borondatezko eta doako odol-emateak ongi funtzionatzen du eta, horri esker, Nafarroak odola eta produktu hemoderibatuak esportatzen ditu beste autonomia-erkidego batzuetako ospitaleetara. Historikoki, odol-emateen rankingeko aurreneko postuetan dago Espainian, 1.000 biztanleko.

Bestalde, CTNSk 2006an ISO ziurtagiria lortu du, eta 2007an CAT ziurtagiria, Transfusioen Ziurtapen Batzordeak emana. HLA eta Biologia Molekularraren Laborategiak, 2001. urtea ezkerro, EFI edo "European Federation for Immunogenetics" erakundearen akreditazioa lortzen du.

Dena dela, Foru Administrazioak eta CTSNk lehenbailehen egin beharrekoak dira hauek:

1.1. Nafarroako urte anitzeko Hemoterapia Plan bat onartzea eta garatzea, ebaluatu eta neurtutako premia errealei erantzuten diena, urteroko lehentasunak, helburu orokor eta espezifikoak, eta adie-

razleak finkatzen dituen, aurreikusitako baliabideak esleitzen dituen, eta plan hori gauzatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko epeak eta prozedurak ezartzen dituen.

1.2. Beharrezkoak diren neurriak hartzea zentro horretako langileen egoera eta lan-giroa hobetze aldera. Denbora-tarte horretan, langileen txandakatze, absentismo eta aldi baterako kontratazio maila handia izan da, eta hori murriztea behar-beharrezkoa litzateke; horrez gain, informazioa eta komunikazioa sustatu beharko lirateke, bai eta langileen aldetik kalitatearekiko konpromisoa ere.

1.3. Bitartekoak eta prozedurak hobetzea odolaren eta produktu hemoderibatuen stockak gomendatutako segurtasun-minimoen gainetik daudela kontrolatu ahal izateko denbora errealean eta behar bezala, une oro ospitaleen premiak estalita daudela bermatzeko.

1.4. CTSNren informazio- eta kudeaketa-sistema integrala garatzea eta praktika operatiboan jartzea, horren barruan sartuz Nafarroako hemoterapia-sareko zerbitzu eta erakunde guztien arteko prozesu eta harreman guztiak.

2º.- Nafarroan ez dago zerbitzu publikorik zelulen eta ehunen alorreko jarduerak eta prozesuak zentralizatzen eta koordinatzen dituenik. Alde horretatik, Osasunbideak premiak agertu ahala asetzea aukeratu du, ospitaleei administrazio-baimenak emanez eta erreferentziazko entitateekin edo zentroekin hitzarmenak eginez, jarduera zehatzak egin ahal izateko. Gure iritziz, odol-emateari eta transfusioei buruzko planarekin batera zelulei eta ehunei buruzkoa ere prestatzeko aukera aztertu behar da, jarduera- eta koordinazio-esparru argi bat izateko epe ertain eta luzera, Osasunbideko plan estrategikoen barruan.

3º.- Foru Administrazioak martxan jarri behar du eskualde-plan bat, Hemoterapia Sarearen eta zelulen eta ehunen zentro eta zerbitzu guztien kudeaketaren eta funtzionamenduaren gaineko kontrolak eta auditoriak egiteko. Horrela, araudia betetzen dutela eta eskatutako kalitate-neurriak aplikatzen dituztela bermatu ahal izanen da.

4º.- 2006ko aurrekontuak betetzeari dagokienez, aurkeztutako kontuek era egokian islatzen dituzte, oro har, ekitaldiaren zuzeneko eta zeharkako gastuak, kontabilitate- eta aurrekontu-printzipio eta -arau aplikagarri jarraituz. Dena dela, kontabilitate-sistema berri bat garatzeko ahalegina egin behar da, odol-ematearen eta CTSNren kostuak eta sarrerak ezagutzeko balioko duena, guztizkoak zein prozesu bakoitzarenak.

5º.- CTSNren kudeaketak eta jarduera ekonomiko-finantzarioek errespetatu egiten dute, oro har, legezketasun-printzipioa. Hala ere, neurriak hartu behar dira datu pertsonalak eta kontratazio publikoko datuak babesteari buruz indarreko legeriak dioena betetzeko, txosten honetan zehar adierazitakoari jarraikiz.

#### **IV. OHARRAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK**

Egindako lanaren norainokoa eta mugak kontuan hartuz, hauexek dira gure ohar, ondorio eta gomendio nagusiak:

##### **IV.1. ODOL-EMATEAREN ETA CTSNREN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA**

###### **IV.1.1. Plangintza eta programazioa**

1.- Foru administrazioak ez du Hemoterapia Plan operatiborik, elementu hauek ezartzen dituenik: lehentasunak, helburu orokorrak, helburu espezifikokoak, benetakokoak eta neurgarriak, arduradunak eta zerbitzuak, erabili beharreko adierazleak, aurreikusitako baliabideak, indarraldi- eta gauzatzeko epeak, eta jarraipen- eta ebaluazio-prozedurak. Eta hori dena, detektatu eta ebaluatutako premien arabera.

2001eko plana dago, baina formalki aldatu beharra dago, arestian aipatutako elementuak jasotzen dituen beste bat eginda.

2.- Aztertutako denbora-tartean, CTSNk hainbat helburu eta adierazle finkatzen ditu aurrekontuetan. Horietako asko urtero errepikatzen dira, eta ez da ageri beren koherentzia eta benetakotasuna baloratu denik, ez eta estali beharreko premiak eta xedeak aurrez kuantifikatu direnik ere. Bere gauzatea eta betetze-maila ez dira sistematikoki ebaluatu. Ikusten dugu ez dagoela bat-etortzerik aurrekontuen (beren helburu eta adierazleekin) eta CTSNko kezka eta jardueraren artean (oroitidazki-an nahiz prozesu bakoitzerako helburu eta adierazleak zehaztean adierazitakoak).

3.- CTSNk Foru Komunitateko odolaren eta produktu hemoderibatuen premiak estaltzen ditu Nafarroako biztanleen borondatezko eta doaneko odol-emateekin. Horixe izan da, eta oraindik ere hala da, Nafarroako odol-ematearen indargunea. 2007an, Nafarroa dago Espainiako odol-emateen rankingeko lehen postuan, mila biztanleko.

Nafarroak odola eta hemoderibatuak esportatu ditu eta esportatzen ditu beste autonomia-erkidegoetako ospitaleetara. Dena dela, esportazioa gutxituz joan da (%15etik %6ra) azken hamar urteotan. Ordainetan, Nafarroak beste erkidego batzuetara jotzen du, produktu jakinen emergentzi-azko premiak sortzen direnean.

Azken hamar urteotako batez besteko odol-emateak 31.838 izan dira, eta 50,7ko indizea egon da 2007an, mila biztanleko. Urteko odol-emateen kopuru efektiboa 15.200 ingurukoa da, eta emate bakoitzak batez beste bi aldiz ematen du.

Murriztu egin dira odol-ateratzeak, -%1 eta -%2 artean, eta odol-emateak mila biztanleko (milako 60tik 50era). Odol-emateak ez dira ugari populazioaren erritmo berean.

Azken urteotan, 40 urtez beherako odol-emateak ugari egin dira.

Odol-ateratzeen murrizketa konpentsatzen da, hein batean, Nafarroaz kanpoko beste ospitaleetara hemoderibatu gutxiago esportatuz.

Ez da lortu 2006ko helburu orokorra, hau da, mila biztanleko 54 odol-emate egotea eta odol-emateak %3 ugartzea<sup>(1)</sup>.

###### **IV.1.2. Antolakuntza, plantilla eta langileen egoera**

1.- CTSN osasun-zentro bat da, eta gaur egun Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren mende dago.

CTSNk aldaketa handiak izan ditu bere bizitzan zehar, baina 2006tik aurrera erabaki eta gertatu dira aldaketarik handienak alor guztietan.

Estatutu berriak onartu ziren 45/2006 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren CTSNren egitura, antolakuntza eta organigrama, kokapena, izena<sup>(2)</sup> eta funtzionamendua, eta kalitatearen kudeaketa hasi zen ezartzen. Hori dena gertatu zen, besteak beste, sistema indarreko araudira egokitu ahal izateko. CTSNren jarduera-eremua odolera eta produktu hemoderibatuetara mugatu zen, eta bere eskumenetik kanpo utzi ziren zelula-eta ehun-bankuekin lotutako jarduerak.

2006an eta 2007an, odola ateratzeko zerbitzuak berrantolatu egin ziren: arratsaldeko txandak luzatu ziren, Tuteran sartu zen, eta autohemotekaren zerbitzuak foru lurralde osora zabaltzeko, zabaldu ziren,

(1) Helburu horri, bestalde, ez da jaso detektatutako eta balioetsitako premien araberako zenbaketa batean.

(2) Odol Bankuaren izen berria Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroa da.

ekipo batekin. Lanegun osora zabaldu eta banatu ziren odol-emaleei arreta eskaintzeko orduak.

2007ko azken hiru hilabeteetan antolakuntza-aren egitura eta organigrama aldatu ziren, ardura-dun berriak izendatuz.

– CTSNko arduradunek eta langileek diotenez, ez daude behar bezala definiturik funtzioak, ardurak, postuak eta betekizunak. Aipagarriak dira honako hauek:

Bi (edo hiru) zuzendaritza egotea, zein bere eskumenekin, nahiz eta teorian "zuzendaria" izan CTSN osoaren funtzionamendu onaren erantzule;

Kudeaketa, erantzukizuna eta sustapenerako bitartekoak esleitzeari buruzko arazoak;

Odola aterako den eremua koordinatzearen erantzukizuna norena den zehaztuta ez egotea;

Aztertutako epean, atalburutzan lan-metaketa handia izatea;

Prozesuen kalitatearen arduraduna aldi baterakoa izatea eta txandakatzea;

Langileen, produktuen eta biltegiaren kudeaketa bereiztea osasun-alorrekoak diren edo ez kontuan hartuta, finantza-kudeaketa kalitate-sisteman ez sartzeari, eta bertan ez inplikatzeari Kudeaketa Zuzendaritzako zerbitzuak;

CTSN ez sartzeari berarekin zerikusia duten jardueran batzuen zuzeneko kudeaketan.

## 2.- Plantilla

Plantilla "erreal" edo efektiboa 57 langilekoa da (2007ko ekaina). Kopuru horren barruan daude NAO argitaratutako plantilla ofizialaren 45 postuak, eta "egiturazko" 12 postuak<sup>(3)</sup>.

2006ko eta 2007ko plantillak txosten honen 1.2 eta 3 eranskinetan daude.

Langileen absentismo-indizea bikoiztu egin da 2005 ezkererako; 2006an %15,58koa zen, eta 2007an %17,90ekoa; hau da, Osasunbidearen 2006ko batez bestekoa (%8,04) baino dezente handiagoa.

Argitaratutako plantilla ofizialeko oinarrizko plaza<sup>(4)</sup> hutsen indizea %33koa da 2006an, eta

%24koa 2007an. 2006an, plaza hutsen indizea %45ekoa da guztira.

2006an egindako aldi baterako kontratuak ugari dira, hau da, 475.

Kontratutako pertsona bakoitzeko, batez beste aldi baterako ia 6 kontratu egiten dira, baina langile batzuk 33 aldiz ere kontratatu dira urte berean.

Kontratuen iraupena oso aldakorra da. 2005eko eta/edo lehenagoko 6 kontratu daude, eta egun bateko kontratuak daude.

Opor-ordezkapenak egiteko sinatu ziren 243 kontratuen iraupena, batez beste, 5 egunekoa da.

Langileen txandaketa-indizea 2006an %33koa da, bertan sartu gabe opor, eritasun eta beste arrazoiengatik ordezkapenak. Langileen txandaketa handia da.

## 3.- Langileen egoera eta lan-giroa

Lan-giroari eta CTSNko langileen arteko harremanei dagokionez, egoera korapilatsua atzeman da, eta horrek eragina du langileengan eta maila guztietan.

Egoera hori eta hura eragiten duten faktoreak "aspalditik" datoz. Hona faktore aipagarrienak:

- CTSNaren misioari, helburuei eta funtzioei buruzko planteamendu desberdinak<sup>(5)</sup>.

- Laborategien etorkizunari eta koordinazioari buruzko zalantzak, batik bat CTSNren laborategiari eta HLA arloari dagokionez:

- Langileen arteko komunikazio egokirik eza, eta taldeak sortu izana, beren arteko komunikazio egokirik gabe. Langileen idazki eta/edo salaketak;

- Arestian aipatu bezala, aldaketa-urteak dira 2006 eta 2007. CTSN araudiaren eskakizunetara egokitzen saiatzen da; izan ere, egoera erreal araudiaren atzetik doa alderdi askotan. Horretarako, CTSNk berrantolaketa eta kalitate-kudeaketa ezarri zituen, eta horrek egokitzeko eta maila igotzeko ahalegin handia eskatzen du. Horrek denak, zalantzarik gabe, tentsioa sortzen du.

(3) Aldi baterako postuak, zerbitzuaren premiei erantzuteko aurrekontua dutenak, baina plantilla ofizialean sartu gabeak eta lehia-keta publikora aterata gabeak.

(4) Oinarrizko plazak: plantilla organikoko plazak, ken izendapen libreko eta aldi baterako postuak.

(5) Hartutako erabaki batzuk ez datoz bat 2001eko Planeari Odol Bankuko arduradunek behin et aberri adierazitako aspirazioekin, hau da, CTSN "zelulen eta ehunen" erreferentzia-zentroa izatearekin, autonomia eta bere erabakiak hartzeko gai dena, adibidez langileen eta ekonomia-kudeaketaren alorretan.

2006ko erdialdean, oraindik ere zera aipatzen da koordinakundearen txosten batean: Zuzendaritzaren ustez Odol Bankuak horixe izan behar du, "Odol Bankua" eta etorkizunean Ehunen Bankua.



- Berrantolaketaren ondorioz lanpostu-aldaketak egin izana, eta langileen mugikortasun, aldi baterakotasun eta absentismo handia.

4.- Osasunbideko Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak (SPRL) egoera horretan esku hartu zuen, Gerentziak eta Zuzendaritzak hala eskatu-rik, lan-giroa gaiztotu zelako.

Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak faktore psikosozialen diagnostiko bat eta txosten bat egin zituen 2006ko abenduaren 19an. Txostenean, hobetu beharreko faktoreak aipatu ziren, eta 14 prebentzio-neurri proposatu ziren.

“In situ” fiskalizazioa egiterakoan, ez da inon jasotzen neurri horien ezartze-maila eta eraginkortasuna ebaluatu direnik. Ikusten da horietako zenbait ez direla abiarazi edo bete.

Txostenean faktore positibo batzuk ere aipatzen dira: langileen satisfazioa egiten den lanarekin, emaleekiko harreman atsegina, lan-talde naturalen arteko kohesioa, eta lanerako gaitasuna eta profesionaltasuna.

– Aldi berean, Lan Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak bi jardueratan esku hartu du, eta horrek, gure iritziz, interesen arteko gatazka sor dezake: a) gatazkak eta jazarpen psikologikoak prebenitzeko, konpontzeko eta jarraitzeko hasitako prozeduran, eta b) Gerentziaren eskariz, faktore psikosozialen aipatutako azterketan, bertan proposatzen delarik, besteak beste, "gatazka aztertze eta konpontzeko bitartekaritza egitea" inplikaturako pertsonekin.

5.- 2006an, Zuzendaritzak eta langile batzuek elkarren kontrako idazkiak eta salaketak aurkeztu zituzten. Osasunbideko Zuzendaritzak informazio-prozedurei hasiera ematea erabaki zuen, diziplina-bideari ekin aurretik eta, horretarako, Araubide Juridikoaren Zerbitzura igorri zituen. Espedienteak artxibatzea agindu zuten ebazpenek.

Aztertutako jardueretan hutsegiterik edo diziplinazko erantzukizunik egon den aztertu dute prozedura juridiko-administratiboek. Ez da arazoetan sakondu, ez arazoak konpontzeko zentzuzko neurriak proposatu. Gure iritziz, idatziek eta/edo salaketek eta emandako trataerak argi erakusten du zer-nolako lan-giroa dagoen.

– Ondorioa: langileen antolakuntza, jarduera eta kudeaketari buruz egindako azterketan hainbat indargune eta ahulgune aipatu dira. Gure iritziz, ahulgune horiek langileen gaiari lehentasunez heldu beharra adierazten dute, sistemaren alor nagusia izaki, bai eta trataera egokia eta berehalakoa eman beharra ere, kalitateko kudeaketa bermatuko bada.

*Hona hemen gure gomendioak:*

*Hainbat urterako Hemoterapia Plan bat onestea eta garatzea, honetarako: ebaluatu eta kuantifikatutako premiei erantzun; urtez urteko eta epe laburreko helburuak finkatu; horiek gauzatzeko arduradunak izendatu; lehentasunen eta arazoizko baliabideen arabera baliabideak esleitu; eta kontrol- eta jarraipen-mekanismoak ezarri, neurri zuzentzaile egokiak hartzea eta horiek ebaluatzea bermatuko dutenak.*

*Nafarroako Odol Emaileen Elkartearekin (Adona) koordinazioa indartzea eta harekin beharrezko lankidetzak bermatzea (ikusirik iruzkinak txosten honen III.4 atalean). Herritarrek odol emateko jardueran eta parte-hartzean duten eboluzioa aztertzea eta baloratzea, eta, helburuak eta adierazleak finkatzerakoan, kantitatearen aurretik kalitatea jartzea.*

*Antolatze-egitura erraztea eta argitzea. Argi eta modu gaurkotuan zehaztea lanpostu bakoitzaren funtzioak eta zereginak, eskumenak, erantzukizunak, betekizunak, ordezkapenak eta profila.*

*Kudeaketaren kalitatea bermatzea, funtzio iraunkor, gaitu eta independente baten laguntzaz.*

*Berrantolaketa egin ondoren, lanpostu bakoitzaren premiak eta lan-kargak ebaluatzea, alor bakoitzean behar den plantilla definitzeko eta Zentroari huraxe emateko. Lanpostuetan lortu nahi diren emaitzei, mugikortasunari eta behin-behinekotasunari dagozkien helburuak finkatzea; horrela, langileen behin-behinekotasun, absentismo eta txandakatze handiarekin lotutako arazoak murrizteko.*

*Prestakuntzaren bidez langileen balioaniztasuna indartzea. Tutoretza-lana indartzea, eta jarduera bati heltzen dion langile orok beharrezko gaitasuna duela bermatzea.*

*Informazio- eta komunikazio-bide normalak garatzea langile guztien artean, goitik behera eta alderantziz. Kalitate Batzordearen eta Hemoterapia Batzordearen bilerak finkatzea eta ugaritzea, eta informazioa eta komunikazioa indartzea, langile guztiekin aldizkako bilera programatuak eginez. Planei eta antolakuntzari buruzko informazio gaurkotua langile guztien eskura dagoela ziurtatzea, erraz eta zuzenean eskuratzeko moduan.*

*Langileei parte harraraztea Plana eta aurrekontuak egiten, eta langileen kontzientziaketa eta konpromisoa indartzea kalitatearen kudeaketa egiterakoan eta prestakuntza-planetan parte hartzerakoan.*

*Idazkiak/salaketak eta tipifikatu gabeko gatazka tratatzeko bideak/protokoloak garatzea, interes orokorrak hobeto babesturik egon daitezen eta tratu egokia eman dakien gertaeren berri ematen duten langileei. Barne-organismo bat sortzeko ideia aztertzea, krisi- edo gatazka-egoerak era neutroan eta independentean konpontzeko, arautan hutsegite gisa tipifikatu gabeko jarduerak badira, batez ere zuzendaritzak zerikusia duenean.*

*Oraingo egoerari dagokionez, egoera konpontzeko beharrezko neurriak hartzea, batetik Zentroak ongi funtziona dezan eta, bestetik, langile guztien eskubideak eta betebeharrak errespetatu daitezen.*

*Langile guztien ebaluazioa egitea, lortutako helburuak eta lan-ibilbidea kontuan hartuta. Kalitatearen kudeaketan ezinbestekoa da langileak animatzea eta motibatzea, langile bakoitzaren meri-*

*tua eta konpromisoa balioestea eta garapen pertsonala eta profesionala aitortzea.*

#### IV.2. ODOL-EMATEAREN KOSTUAK

CTSNk ez dauka kostuak ebaluatzeko sistema operatiborik, guztizko kostuez, prozesu bakoitzaren kostuez eta ardura-zentro bakoitzaren kostuez informazioa ematen duenik. Alabaina, arduradunek hori ezartzeko eta garatzeko lanean dihardute.

Odola ematearekin eta CTSNren jardurekin zuzenean lotuta dauden 2006ko guztizko gastuak kalkulatu ditugu. Beharrezko informaziorik ezean, ez ditugu sartu CTSNri emandako zerbitzuengatik Kudeaketa Zuzendaritzak eta Zerbitzu Nagusiek izandako zeharkako gastuak, ez eta ibilgetuaren gastuak ere.

Horrela kalkulaturako kostua 7.095.972 eurokoa da, guztira.

Odol-ematearen kostu estimatua 2006an	Euroak	Zentro kudeatzailea
CTSNaren aurrekontu-kontusailen kargurako gastuak	6.271.586,16	52224
Informazio- eta kudeaketa-sistema eskuratzea eta ezartzea, Osasunbideko Zuzendaritza-Gerentziaren kontura	163.560,00	52000
Autobuseko gidaria, ibilgailu-parkearen kontura (Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua)	24.000,00	02540
ADONA 2006 hitzarmena, Osasun Departamentuaren kontura	466.000,00	51002
Txalet Ospitalea Birgaitzeko Obren Hitzarmena, Osasun Departamentuaren kontura	170.825,46	51000
<b>Guztira</b>	<b>7.095.971,62</b>	

*Hona hemen gure gomendioak:*

*Kalitate-kudeaketaren barruan, antolakuntza-, informazio- eta kontabilitate-tresnak garatzea, organigramaren guztizko kostuak identifikatu eta zenbatu ahal izateko, bai eta zentrollan-alor bakoitzeko nahiz prozesu bakoitzeko kostuak ere.*

*Finantzen, kudeaketaren eta prozesuen informazioa "aginte-koadro integral" batean sintetizatu beharko litzateke, helburuen arabera lan egiteko,*

*eta programazio-, kontrol- eta ebaluazio-tresna gisa balio izateko.*

#### IV.3. FINANTZEN ETA AURREKONTUAREN KUDEAKETA

##### 1.- Aurrekontuak

Hauxe da 2006ko Gastuen eta Sarreraren Aurrekontuaren taula laburtua:

<b>Gastuak</b>						
Gaia	Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorturiko betebeharrak	Ordaindutakoa
12	Funtzionarioen ordainsariak	1.151.558	-167.017	984.541	984.541	984.541
13	Lan-kontratupekoen soldatak	1.238.052	-479.127	758.925	758.925	758.925
16	Kuotak, prestazioak eta gizarte-gastuak	277.025	20.273	297.298	297.298	297.298
17	Langileen ordainsari aldakorak	155.824	1.859	157.683	118.692	118.692
	1. kapitulua, guztira	2.822.459	-624.011	2.198.448	2.159.457	2.159.457
21	Konpontze-, mantentze- eta kontserbatze-lanak	24.128	2.060	26.188	26.188	25.322
22	Materiala, homidurak eta beste	2.700.525	1.286.345	3.986.870	3.986.821	2.624.309
23	Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	22.880	-7.057	15.823	15.823	15.823
	2. kapitulua, guztira	2.747.533	1.281.349	4.028.882	4.028.833	2.665.455
60	Inbertsio errealak	100.000	-11.350	88.650	83.296	67.985
	6. kapitulua, guztira	100.000	-11.350	88.650	83.296	67.985
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>5.669.992</b>	<b>645.987</b>	<b>6.315.979</b>	<b>6.271.586</b>	<b>4.892.897</b>

<b>Diru-sarrerak</b>						
Gaia	Kontzeptua	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Aurrekontu bateratua	Aitorturiko eskubideak	Kobratutakoa
33	Homidura eta produktu hemoterapikoak	1.301.736	0	1.301.736	1.291.728	936.504
	3. kapitulua, guztira	1.301.736	0	1.301.736	1.291.728	936.504
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>		<b>1.301.736</b>	<b>0</b>	<b>1.301.736</b>	<b>1.291.728</b>	<b>936.504</b>

2006ko gastuen aurrekontua %37 handitu da 2005eko aurrekontuen aldean, eta %55, berriz, 2002koen aldean. Diru-sarrerak %5,63 handitu dira 2005en aldean, eta %21,95, berriz, 2002ren aldean.

2006an aitorturiko aurrekontu-betebeharrak 6.271.586 eurokoak dira. Aitorturiko diru-sarrerak 1.291.728 eurokoak dira.

2006an gastuak %37 handitu ziren; batez ere, ekitaldi horretan aldaketa hau egon zelako kontabilitatearen eta aurrekontuaren trataeran: aurreko urteetan, kreditu erabilgarriek estalitako gastuak kontabilizatu eta gainerakoa hurrengo ekitaldirako kontabilizatzeko zen; baina 2006an, ordea, izandako gastu guztiak egozten dira, horretarako aurrekontu-kontusailak aldatuz.

Aurreko ekitaldietan kontabilizatu gabeko gastuen kontabilitate-erregularizaziorako egindako aurrekontu-aldaketa kenduta eta inflazioa alde batera utzita, praktikan aurrekontuak ez dira benetan hazi.

Azken 5 urteotako gastuen eta diru-sarreraren eboluzioa dator IV. eranskinean.

## 2.- Langileria-gastuak

2006an aitorturiko betebeharrak 2.159.457

eurokoak dira, eta hasierako aurrekontuaren %76 bete dela adierazten du horrek.

Hasierako aurrekontua 624.011 euro (hasierako aurrekontuaren %22) murriztu da ekitaldiaren amaieran. Murrizketak batez ere aldi baterako langileei eragiten die, eta erakusten du plantilla eze-gonkorra dela, aldi baterako langile asko dituelarik, eta hasierako aurreikuspenak ez zetozeela bat errealitatearekin.

Langileria-gastuak egonkorak izan dira azken 5 urteotan. Balio errealean, gutxitu egin dira.

## 3.- Ondasun eta Zerbitzuetako gastuak

Hasierako aurrekontua %47 handitu da, 4.028.882 eurora arte. Aitorturiko betebeharrak 4.028.833 eurokoak dira.

– Bi zentrifugadorak eta akastun iragazki batzuek problemak eman dituztenez, ezin izan dira lortu "produktu ezadosei" buruz aurreikusitako helburuak, eta, horren ondorioz, lote-galerak gertatu dira. Gainera, fiskalizazioa egiteko unean, guk dakigula ez da neurririk hartu ekipo horien akastuen arrazoiak egiaztatzeko.

– Plasma/produktu hemoderibatuak zatikatze-ko kontratua eta horiek ospitaleetara banatzea: Osasunbideko zuzendari-kudeatzaileak uztailaren

27ko 1238/2004 Ebazpenaz esleitu zuen 2004rako kontratua, hiru urtez berriztagarria, 376.705 euroko prezio estimatua duena. 2006ko kontratua 402.366 eurokoa izan zen.

Osasunbideko kudeatzailearen abenduaren 31ko 2144/2007 Ebazpenaz, kontratuaren iraupena 2008ko apirilera aldatu zen, klausulen pleguan aurreikusitako epea errespetatu gabe.

Zentroen eskaerari erantzuteko egindako horniduren zenbateko aitortua 866.028 eurokoa izan zen 2006an eta 917.843 eurokoa 2007an; hots, kontratuan zetorrena baino askoz gehiago, eta horrek argi erakusten du alde aurreko aurreikuspenik eta plangintzarik eza.

Hornidura-prozedurei eta horiek ospitaleei fakturatzeari dagokienez, ikusi 5. puntuko iruzkinak, "Industrialki tratatutako produktu zatikatuen" diru-sarrerari buruzkoak.

– Laborategiko produktu kimikoak: 2006an 383.810 eta 54.209 euroko betebeharrak aitortu zitzaizkien produktu horien bi enpresa hornitzaileei. Lehenbiziko kopuruak gainditu egin zuen bere kontratuan aurreikusitakoa, 2005ean kontabilizatu gabeko gastu batzuk sartu baitziren.

– Aztertutako urteetan, Kudeaketa Zuzendaritzako Administrazio eta Hornidura Buruzagitzan hiru pertsona egon dira, eta horrek eragina izan du atalaren programazioan eta kudeaketan.

#### 4.- Inbertsioak

a) Aitorturiko betebeharrak 83.296 eurokoak dira. Eskuratzek, oro har, indarreko lege-prozedurei jarraituz egin dira, baina kasu batean ez da inon ageri dagokion bermea eratu denik.

B) Nafarroako Osasun Eskualdeko eta Osasunbideko Transfusio Sareko CTSNren Informazio eta Kudeaketa Sistemaren esleipena – 180.000 euro.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko Informazioaren Gizarterako Zuzendaritzak (ez CTSNk, ez bere aurrekontuak) eskuratzearen izapideak egin eta esleipena egin zuen irailaren 28ko 401/2006 Ebazpenaren bidez.

Kontratu hori betetzeko orduan hainbat gorabehera egon dira, txosten honen IV.9 atalean datozenak, eta atzerapen handiak eragin dituzte sistema ezartzerakoan. Hornitzaileak faktura aurkeztu ondoren eta beharrezko txosten teknikoak jasota, hornidura ordaindu eta bermea itzuli da, baina kontratistak CTSNrekin lanean eta berari laguntzen jarraitu du, berori behar bezala ezartzeko eta sistema guztiz operatiboa izateko dauden problemak gainditzearren.

Berriazko azterketa bat egin zaio informazio-eta kudeaketa-sistemari. Oharrak eta iruzkinak, esan bezala, txosten honen IV.9 atalean datoz.

#### 5.- Diru-sarrerak

– CTSNk diru-sarrerak lortzen ditu plasma zatikatetik eratorritako hemoderibatuetan eta produktuak hornitzeagatik eta sare publikoan ez dauden ospitaleei analitika-zerbitzuak emateagatik. Era berean, hezur-muin emaleen bateragarritasunaren analitika- eta determinazio-zerbitzuak REDMOri (Espainiako Hezur-muin Emaleen Erregistroa) fakturatzen dizkio.

Diru-sarrerak %22 hazi dira 2002tik, joera argirik gabe. 2006an aitorturiko eskubideak 1.291.728 eurokoak dira. Diru-sarrearen %70 ospitale pribatu bati egindako zerbitzu eta hornidurengatik da. Fakturatu bai, baina ez dira kontabilizatzen ez kobratzen sare publikoko ospitaleei egindako hornidurak eta zerbitzuak.

Azken 5 urteotako diru-sarrearen eboluzioa IV. eranskinean dator.

– Fakturazio-zirkuituak aldatuz doaz emandako produktu- edo zerbitzu-motaren arabera. Denetan erabiltzen dira, gutxienez, elkarrekin lotu gabeko hiru programa informatiko. Horrek bikoiztu egiten du datuak sartzeko lana, eta erregistroan akatsak egiteko arriskua ere areagotu egiten da.

Diru-sarrerak kudeatzeko eta fakturatzeko prozedurak ez daude formalki idatziz jasota, eta ez daude sartuta ere, beraz, kalitatea kudeatzeko prozeduretan eta fitxetan.

– Produktu zatikatuak, industrialki tratatuak

Ospitale guztietarako egiten dira hornidurak.

Produktu hemoderibatu industrializatuak "medikamentu" moduan daude sailkatuta, eta farmazialari batek kudeatu behar ditu. Transfusio Zentroak ez du farmazialaririk, eta ezin du bere gain hartu biltegiaren kudeaketa eta ospitaleetarako banaketa. Zerbitzu horiek, beraz, kontratatutako enpresak egiten ditu. Ondorioz, CTSNk ezin ditu kontrolatu ez stockak, ez eta produkzio gehiegi eta/edo produktuen galerarik dagoen ere eta, horrez gain, ezin du banaketa behar bezala koordinatu.

Ospitaleek hornitzaileari zuzenean eskatzen dizkiote produktuak, eta hark CTSNko zuzendariari jakinarazten dizkio eskaerak eta ospitaleei banatutako produktuak.

Ondoren, zuzendariak fakturak jaso, Kudeaketa Unitatera bidali, eta azken horrek egiten du fakturazioa, non eta hornitzaileak ez dion produktu

jakin bat ospitaleari zuzenean hornitzen, fakturazten eta kobratzen.

– REDMOri fakturaturako "determinazioei" dagokienez, aplikaturako tarifak dira 2000. urtean Osasun Ministerioak onartutako berak. Atzerape-nak izan dira nola fakturazioan hala kobrantzan.

*Hona hemen gure gomendioak:*

*Beharrezko egonkortasuna ziurtatzea kudea-  
ketaz arduratzen diren postuetan.*

*Ekipo batzuek gaizki funtzionatzeko arrazoiak  
aztertzea eta, hala balegokio, neurriak hartzea.*

*Ekipo-inbertsioak eta -eskuratzeko programa-  
tzea detektatutako premien arabera, alde aurretik  
eta behar beste denboraz.*

*Jasotako zerbitzuak eta hornidurak ordaindu  
eta bermea itzuli aurretik, lege-betekizunak eta  
kontratu-klausulak errespetatu direla ziurtatzea.  
Kontratu berriak legeak eta prozedurak errespetatuz  
luzatzen edo esleitzen direla kontrolatzea.*

*Espedienteak beharrezko egiaztagiriek berri-  
kustea eta osatzea.*

*CTSNko ekipamendu-ondasunen eta inbertsio-  
en inbentario osoa, berrikusia eta gaurkotua era-  
matea.*

*Emandako produktuen eta zerbitzuen finantza-  
kudeaketako eta kobrantzako prozedurak gara-  
tzea, homogeneizatzea eta kalitatea kudeatzeko  
sisteman sartzeko, bai eta informazio-sistema oro-  
korretan integratzea ere, erabilera bereziko siste-  
mak ugaritu ez daitezten.*

*Eskaeren, albaranen, fakturazioaren eta  
kobrantzaren datuak aldizka bateratzea.*

#### IV.4. ODOL EMAILEEN ELKARTEA (ADONA)

1.- Besteak beste, Elkartea odol-ematea susta-tzeaz arduratzen da. Bere jarduerak Osasun Departamentuak finantzatzen ditu.

Borondatezko odol-emateak ongi funtzionatu du Nafarroan, eta aztertutako sistemaren beste indargune bat da.

2.- Osasun Departamentuak Adonaren jardue-rak finantzatu ditu, ia sortu zenetik. Harremanak "lankidetzak-hitzarmenen" bidez formalizatu dira. Osasun Departamentua da aurrekontu-kontusailen titularrak, hitzarmenak sinatu eta dirulaguntzak kudeatzen dituenak, eta ez CTSN.

Sustapen-lanak egiteko 2006ko Hitzarmena baimendu zuen apirilaren 18ko 687/2006 Ebazpe-nak.

2006an kontabilizatutako dirulaguntzak 636.825 eurokoak dira (= 466.000 euro 2006ko hitzarmena + 170.825 euro egoitza berria birgai-tzeko hitzarmena). 2007an guztira ordaindutakoa 692.000 euro dira.

Dirulaguntza egiaztatze aldera, hitzarmenean erabaki bezala, Adonak bere jardueren oroitidazki bat aurkeztu zuen, eta auditore independente batek egindako auditoria-txostena.

3.- Adonak autohemoteka berria eskuratu du Nafarroako Gobernutik eta CANetik etorritako fun-tsekin, eta ondoren CTSNri utzi dio erabiltzen. Gidaria izan ezik, langileak CTSNkoak dira. Kudeaketa Zuzendaritzak du ekipoen mantentze-lanen gaineko ardura.

4.- Adonaren eta CTSNren artean zailtasunak daude, batez ere jarduerak koordinatzeko eta pla-nifikatzeko, eta fitxategietako datuak komunikatzeko, jakinarazteko, eskuratzeko eta erabiltzeko.

*Hona hemen gure gomendioak:*

*Foru Komunitatean, odol-emateari buruzko  
aldizkako gogobetetze-ebaluazioak egitea emaile  
eta erabiltzaileei.*

*Jardueren koordinazioa eta programazioa bul-  
tztatzea, eta ezinbesteko lankidetzak ziurtatzea  
odol-prozesuez eta odol-ematea sustatzeaz ardu-  
ratzen den CTSNren eta Adonaren artean. CTSNk  
hemoterapia-plana garatu behar luke eta bertan  
integratu sustapen-plana, Adonarekin koordinazio  
estuan, hark bere jarduerak behar bezala progra-  
matu ditzan.*

*Sustapen-jardueretarako aurrekontu-kontusai-  
lak CTSNk kudeatzeko aukera aztertzea, bere  
eskumen eta erantzukizun zuzenen barruan, bai  
eta Adonarekiko hitzarmena koordinatzeko eta  
jarraitzeko aukera ere, elkartek borondatezko  
odol-ematearen alorrean bere jarduerak egiteko  
behar adinako finantziarioa eduki dezan.*

*Hala balegokio, dirulaguntzen finantza-kontrola  
sartzeko Kontuhartzaitza Nagusiaren auditoria-  
eta kontrol-programa berrian.*

*Bere helburuetarako behar duen informazioa  
elkarteari ematea, betiere ziurtatuz fitxategietako  
datu pertsonalak babesten direla, automatizatuak  
nahiz eskuzkoak*

(Ikusi jarduera, programazioa eta premien estaldurari buruzko ondorioak eta gomendioak aurreko IV.1 atalean).

#### IV.5. BAIMENAK, ZIURTAGIRIAK ETA AUDITORIARIK

CTSNren zerbitzuei eta odol-ematearen kudeaketari hainbat ikuskatze eta kontrol egin zaizkie 2006 eta 2007 artean:

1.- CTSNk eta Unitate Mugikorrek administrazioaren baimenak eta baliozkotzeak dauzkate, batek transfusio-zentro moduan lan egiteko, eta besteak zentro mugikor moduan.

2.- CTSNk ISO ziurtagiria lortu zuen 2006an, eta Transfusioen Egiatzapen Batzordearen (CAT) egiaztagiria 2007an.

– 2007an ISO ziurtagiria berritzea erabaki aurretik, auditoria-taldeak berrikuspen bat egin zuen. Bere txostenean lau ezadostasunen berri eman ziren Dokumentazio, Gogobetetzearen Ebaluazio, Jarraipen eta Zuzenketa prozesuei dagokienez.

– CATeko auditoreek 8 desbideratze ere aipatu zituzten kalitate-kudeaketako estandarretan.

ISO eta CAT txostenen oharrei erantzunez, CTSNk neurri zuzentzaileak proposatu zituen.

3.- CTSNk kontratatutako kanpo-aholkulariak auditoria bat egin zuen 2007an. Era berean, produktu hemoderibatu batzuen enpresa hornitzaileak zegokien prozesuen auditoria egin zuen.

4.- HLA eta Biologia Molekularraren laborategiak 2001-2002 ezker berritu du European Federation for Immunogenetics erakundearen egiaztagiria.

Komisario auditoreak 13 hutsune aipatu zituen 2008ko maiatzaren 14an, eta horiek zuzendu beharko dira egiaztagiria berritu ahal izateko.

HLA laborategiaren puntu kritikoa langileen egoera iruditzen zaio, esparru hauei dagokienez: txandakatzea, mugikortasuna, kualifikazioa eta prestakuntza.

Komisarioak gomendio hauek eman zituen bere txostenean:

*Erabilitako HLA teknikan beharrezkoak diren kualifikazioak eta eskumenak dituzten langileak jartzea laborategian.*

*Langile teknikoaren postuak egonkortu egin behar dira, eta prestakuntza egokia jaso behar dute.*

*Aurreko txostenean jasotako hutsune batzuk zuzendu egin behar dira.*

2008ko abuztuaren 12an EFI erakundeak egiaztagiria berritzen zuela jakinarazi zuen.

#### IV.6. AZTERTUTAKO PROZESUEI BURUZKO OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Fiskalizazioaren barruan, 2006an ezarritako kalitate-kudeaketaren prozesuak aztertu dira. V. eranskinean dator prozesuen mapa.

Hauexek dira egindako azterketaren ohar eta gomendio nagusiak:

1.- CTSNko arduradunak neurriak hartuz eta garatu joan dira, aurreko atalean aipatutako auditoria- eta kontrol-txostenetako hutsuneak zuzentzeko.

2.- Ekintza zuzentzaileak bultzatzea komeni da, bai eta hartutako neurriak dokumentatzeko, jarraitzeko eta ebaluatzeko mekanismoak garatzea ere, besteak beste Aginte Koadro Integrala. Aurreikusitako eta egindako helburuen artean dauden ohar, intzidentzia eta desbideratze guztiak aztertu eta eztabaidatu behar dituzte horietan inplikaturako langileek, eta arrazoiak ikertu behar dira. Azterketaren ondoren, Zuzendaritzak eta arduradunek neurri zuzentzaileak hartu, eta ziurtatuko dute aplikatzen direla eta ondoren beren eragina ebaluatzen dela, epe erabilgarrietan.

3.- Oharrak eta intzidentziak tratatzeko prozesua informatizatzea komeni da, eta bertan agertzea horien deskripzioak, neurri zuzentzaileak, jarraipena eta ebaluazioa. Erregistro eta trataera hori egiteko, agian informazioa kudeatzeko E-delfi sistema berria ezarri eta garatu beharko litzaiteke.

4.- Gomendatzen dugu honakoak ziurtatzea:

– Iraungitze-data gainditu duten laborategiko produktuak erretiratzea.

– Odol-osagaien kalitate-neurketen laginak eta laginketa-maiztasunak kontrol estatistikoko baten bidez egitea, eta horien trazabilitatea gordetzea.

– Kontrol bakteriológico egokia egitea odola ateratzeko prozesuetan.

– Zerrendak, prozedura-fitxak eta jarraibide teknikoak gaurkoturik egotea eta prozedurak eta epeak jarraitzea ekipoak, aparatuak eta aplikazio informatikoak berrikusteko eta baliozkotzeko orduan, analisirako erabili aurretik.

– Tuteratik datozen garraioetan kontrolatzea muga onargarrien barruan mantentzen dela tenperatura.

Era berean, serologiaren ordeztu DNA teknikak erabiltzeko aukera aztertzea gomendatzen dugu, sistema automatizatuak erabil daitezkeeneko emaille-tipifikazioko kasuetan.

5.- Produktu akasduengatik egindako erreklamazioak ospitale batetik bestera zergatik aldatzen diren ikertzea komeni litzateke, eta zergatik egon diren baztertze-kasu gehiago 2006an.

Honako adierazle hauek gainditu egin dituzte aurreikusitako helburuak: "unitate mugikorrean eskegitako odol-bilketak", "ohar medikoak", "prozesaketan lortutako produktu ezadosak" eta "emaileen erreklamazio-kopuruak".

6.- Stocken kudeaketari eta premiak aurreikusteari buruz

CTSNk arreta handia eskaintzen die stocken kudeaketari eta jarraipenari, behar bezala erantzun ahal izateko ospitaleen odol eta produktu hemoderibatuen eskaerei. Ohar hauek egin nahi izan ditugu:

– 2008 arte erabilitako sistema informatikoarekin ezin da informaziorik lortu stock historikoez, beren eboluzioaz eta gertatutako etenez.

– 2006ko abenduan, "beste zentro batzuetara produktuak eskatzea" izeneko helburua gainditu egin zen, aurreikusi baino gehiago hazi baitzen ospitalearen eskaera. "In situ" fiskalizazioan ikusi dugunez, stockek, oro har, gainditu egiten dituzte aurreikusitako minimoak, produktu batzuen unean uneko kasuetan izan ezik. Stocken kudeaketa indartzeko, lehenik hemoterapia-plan bat onetsi beharko litzateke, bai eta Nafarroako odol eta produktu hemoderibatuen premiak estaltzeko plan bat ere. Horretarako erabiliko lirateke esperientzian oinarrituz egindako kalkuluak, ospitaleek egindako produktuen erabileraren zentzuzko estimazioak, eta kalitate-helburuak.

– Odol-produktu batzuen faltari dagokionez, 2008ko urtarrilaren 16an eta 17an, CTSNk eta Nafarroako Hemoterapia Sareko ospitaleek, emandako datuen arabera, behar hainbat stock zeukaten, baina CTSNren mailak ez ziren iristen murrizketak eragin zituzten bi produktuen minimo gomendatuetara. Arrazoi bat izanen litzateke CTSNk denbora errealean informaziorik ez edukitzea sareko ospitale guztien stockei buruz.

*CTSNk honako lan hauek egin beharko lituzke:*

– *Produktuen inbentarioaren eta banaketaren erregistro egokiak eramatea. Premiak aurreikusteko, ospitaleko eskaera normalak idatziz eta/edo faxez kudeatzeko, eta produktuak banatzeko prozedurak errespetatzen direla kontrolatzea.*

– *Baliabideak eta prozedurak hobetzea, eta horrela era errealean kontrolatzea stocken eboluzioa -sare osoko sarrerak eta irteerak-, stock horiek gaurkotzea, aztertzea eta konparatzea hurren-*

*go lau egunetarako aurreikuspenekin (bizpahiru eguneko premia larriak estaltzeko behar den denbora normala) eta jasotako eskaera guztiekin, eta beharrezko neurriak hartzea etenik egon ez dadin gomendatutako eta segurtasunezko stock minimoetan.*

– *Nafarroako Hemoterapia Sareko ospitaleekin lankidetzak-akordioak indartzea eta komunikazio-sistema informatizatua ezartzea, informazioa denbora errealean edukitzeko, gerta ez dadin ospitale batek produktu batekin hornidura-problema edukitzea, eta beste batek soberakinak.*

– *Stockak kudeatzeko sistema integratuak era automatikoan eta trazagarrian ohartarazi beharko lituzke arduradunak, mailak aurrez ezarritako segurtasun-mailaren batera iristen ari diren bakoitzean.*

7.- Prestakuntzari buruz

Langileek hasierako eta etengabeko prestakuntza egokia eta aholkularitza jaso behar dute, behar adinako kalitatez egin ditzaten beren lanak. Gaitasun- eta kalitate-baldintza horiek betetzeak langile guztiei eragiten die eta kezkatzen ditu, etengabeak baitira zerbitzuaren teknologia-, antolakuntza- eta prozedura-aldaketak, eta handiak baitira langileen absentismoaren eta txandakatzeen indizeak, txosten honetan agertzen denez.

2006 arte Osasun Departamentuko hezkuntza-planak egon dira, baina ez da berariazko prestakuntzarik egon Odol Bankuko langileentzat. CTSNren Prestakuntza Batzordea 2006ko apirilaren 24an eratu zen, eta 2007ko otsailaren 7an onartu zuen 2007ko prestakuntza-jardueren programa –18 prestakuntza-ekintzarekin–, eta barnefuntzionamendurako arauak, prozedurak eta erabili beharreko dokumentuak landu zituen. 2008an bi proposamen onartu ziren, ikastaroetara joateko laguntzak emateari buruz eta CTSNko etengabeko prestakuntzarako laguntzen arau eta irizpideei buruz.

Langile batzuek adierazi digutenez, fiskalizatutako denbora-tartean, kezka- eta zailtasun-iturri dira prestakuntza-planen informazioa eta komunikazioa, ikastaroetara joateko erraztasuna eta ordezkapenen aukera.

*Hona hemen gure gomendioak:*

*Prestakuntza-programek langile guztien premiak asetzea; hau da, alor bakoitzean jardunbide egokiak eskaintzea eta langileei prestakuntza-denbora minimo bat eskatzea. Helburu nagusitzat hartu behar litzateke langile guztiak prestatzea eta kontzientziaztea, bai kalitatean, bai balioaniztasunean, bai teknologia berrien ezagutzan.*

*Langileen gaitasuna eta jasotako prestakuntzaren eraginkortasuna aldizka ebaluatzea, eta ebaluazioari buruzko langileen akordioa formalki dokumentatzea. Gertuko buruzagiek eta arduradunek langile bakoitzarekin aztertu eta ebaluatu beharko lituzkete premiak, programa bete den eta emandako prestakuntza eraginkorra den, prestakuntza-ekintzak premietara eta lehentasunetara adosteko eta moldatzeko.*

*Prestakuntza-prozedurak informatizatzea, langile guztiei prestakuntzari buruzko "on line" informazioa emateko, eta burokrazia eta paperak murrizteko.*

#### 8.- Kontrol-neurriak eta Auditoriak

Osasun-agintariak ikuskatze- eta kontrol-neurriak ezarri behar dituzte, odola ematen, prozesatzen eta transfusioak egiten diren ospitale eta zerbitzu guztiek bete ditzaten nahitaezko kalitate-arauak eta -betekizunak.

Osasun-agintariak eskualdeko plan bat abiarazi behar dute, Hemoterapia Sareko zentro guztien kudeaketari eta funtzionamenduari buruz kontrolak eta auditoriak egiteko, horrela arauak errespetatu eta kalitate-irizpideak aplikatu ditzaten, bai eta neurri zuzentzaileak ere, beharra balego. Kontrolak eta ikuskatzeak bi urtez behin baino maizago egin behar dituzte horretarako gaituta dauden langileek, eta, besteak beste, laginak hartu, aztertu eta analizatu egin behar dituzte.

#### IV.7. ODOL-EMATEEN ETA TRANSFUSIOEN KUDEAKETA FORU KOMUNITATE OSOAN

Esan bezala, odol-ematearen betekizun teknikoak eta baldintza minimoak ezartzen dituen indarreko araudiak zuzenean eragiten die CTSNri eta Foru Komunitateko ospitaleetako transfusio-zerbitzuei; hau da, Nafarroako Hemoterapia Sareari.

Odol-emateen eta transfusioen arduradunak lanean ari dira kalitatea kudeatzeko sistema "Sare" guztira zabaltzeko. Hemoterapia Batzordeak, 2006ko urrian, "Nafarroako Transfusio Sarearen Hemoterapia Prozesua" izeneko proiektua ezartzea onetsi zuen, CTSNren koordinaziopean.

Sistema informatikoaren ezarpenarekin gertatu den bezala, hori garatzeko Batzordeak hasieran aurreikusitako zituen epeak ez dira bete.

Odol-emateetan eta transfusioetan parte hartzen duten zentro guztien kudeaketa eta informazioa ongi koordinatu behar dira, eta kalitate-irizpideak aplikatzerakoan, ezinbestekoa da:

– *Foru Komunitateko premiak estaltzea, etenik gabe, behar bezala onartutako Hemoterapia Plan baten arabera.*

– *Sistemak fase guztietan ongi funtzionatzea, jardunbide egokiak sustatuz.*

– *Hemozaintza indartzea eta sistema osoaren kontrola eta ikuskatzeak erraztea, ikuskatze- eta auditoria-plan bati jarraituz, zerbitzuak etengabe hobetzeko.*

#### IV.8. LABORATEGIA ETA ANALISIA

– *Odol-emate eta odol-osagai bakoitzaren aurrean, CTSNko laborategiak frogak egiten dituen emaitzen eta hartzailearen osasuna babesteko.*

Alde batetik, odol-emate guztiak identifikatu eta "ohiko" analisi- eta kontrol-prozesu bat egiten zaie serologia, NAT teknikak eta immuno-hematologia alorretan. Bestalde, Histokonpatibilitate eta Biologia Molekularraren alorrak (HLA) HLA azterketak eta bateragarritasun-frogak egiten ditu, eta jatorri-kideak ez diren hezur-muin emaitzen erregistroa darama (REDMO).

– *Maila guztietan egindako bileretan maiz eztabaidatutako gaiak izan dira, bai eta kezka-iturri ere, batez ere azken urteotan, HLAREN etorkizuna, kokapena eta CTSNren laborategietan integratzea edo ez, behar bezala kualifikatu eta prestatutako langileak dauden, opor- edo gaixotasun-ordezkapenak, egungo premietara egokitutako ekipoak hornitzea eta zentzuz erabiltzea, osasun-laborategi publikoen egituraketa eta koordinazioa CTSNkoekin, eta informazioaren integrazioa*

(Ikusi iruzkinak txosten honen IV.1.2 atalean).

*Hona hemen gure gomendioak:*

*CTSNko laborategiak osasun-laborategi guzti-ekiko duen egoera aztertuz sektorea antolatzea, Nafarroako laborategiko kudeaketaren eta jardueren koordinazioa indartzea, eta gaixoei buruzko informazioa integratzea. Antolaketa horrek argitu egingen lituzke CTSNko laborategiaren etorkizuna, egitekoak eta alorrak.*

*Laborategiak eta HLA alorrak urte osoan zehar behar hainbat langile kualifikatu (erabilitako teknikerarako behar den esperientzia eta prestakuntza dutenak) dituela ziurtatzea, langileek egonkortasun onargarri bat edukitzea, eta laborategiaren funtzionamendu egokirako beharrezkoa den prestakuntza eta balioaniztasuna bermatzea.*

*Beharrezko neurriak hartzea harreman pertsonalak hobetzeko eta, betiere, harreman horiek jardueren kudeaketa ona eragozten ez dutela ziurtatzea.*



*Transfusio Zentroko Laborategiari beharrezko baliabide teknikoak ematea, eraginkortasun-irizpi-deei jarraituz.*

*Odol-emaileen HLA analisisien eta azterketen informazioa E-Delphi aplikazio berriari sartzeko aukera aztertzea. Era horretan, nabariagoa izanen da HLAREN integrazioa CTSN-n.*

#### IV.9. CTSNREN INFORMAZIO ETA KUDEAKETA SISTEMA

1.- 2006an, azken hamabi urteetan erabilitako eta jada zaharkituta zeuden aplikazio eta ekipo informatikoen ordez (Net-Bank) sistema berri bat jartzea (E-Delphi) erabaki zuen CTSNren Zuzendaritzak, informazio-baldintza teknikoetara egokitzeko, eta egungo teknologiek eskaintzen dituzten informazioa kudeatzeko ahalmenak txertatzeko.

2.- Informazio- eta kudeaketa-sistema eskuratzeko eta ezartzeko finantza- eta kontratu-kudeaketari dagokionez, ikusi txosten honen IV.3.4 atalean egindako iruzkinak.

3.- Sistema berriak bi fase aurreikusten zituen: lehenbizikoan, sistema CTSN-n ezartzea; bigarrenan, ospitaleetako transfusio-zerbitzuen sare osoan ezartzea. Hasieran, 2006ko abenduaren 31rako aurreikusten zen sistema abiaraztea.

Atzerapenak gertatu dira. 2008ko martxoaren bukaeran sistema ez dago martxan CTSN-n, eta ospitaleen sarean sistema ezartzeko bigarren fasea egiteko data zehatzik ez dago.

Arrazoi hauengatik gertatu dira atzerapenak:

- Hasieran uste baino asmo handiagoko proiektua da.
- Zerbitzari berri bat ipini beharra. Plataforma eta Direktorio Aktiboa integratzeko problemak.
- Dagoen informazioa migratzerakoan gertatzen diren akatsak zuzendu beharra, eta datuak arazteko eta beste base batzuekin integratzeko zailtasunak, adibidez Osasun Txartelaren datuak.
- Kontratututako euskarri teknikoaren moteltasuna.

4.- Datu pertsonalen babesa.

– CTSNk legea bete behar du datu pertsonalak babesteari dagokionez, eta emaileen osasunari buruzko eta 30 urteko jardueren analisiari eta trazabilitateari buruzko informazioaren babesa eta konfidentialtasuna bermatu behar ditu.

CTSNk araudia betearazi behar du, eskuzko nahiz automatizatutako fitxategi eta artxiboetan.

– Arduradunek ahalegin, lan eta aurrerapen handiak egin dituzte CTSNren fitxategietan datu pertsonalen babes- eta segurtasun-neurriak ezartzeko. Aipagarria da Osasunbide osoari dagokiola maila handiko segurtasun-neurriak hartzea.

– Datu pertsonalen babesa dela eta, garrantzitsua eta lehenetsi beharrekoa iruditzen zaigu:

- Administrazioak Segurtasun Dokumentua onartzea eta aplikatzea. Bertan biltzen dira CTSNri eskatutako babes-maila handia ziurtatzeko hartutako neurriak eta prozedurak, eta fitxategi horien berri ematen die Datuak Babesteko Agentziari.

- Fitxategien eta artxiboen arduradunek eta datuak tratatzeaz arduratutako langileek prestakuntza egokia jasotzea datu pertsonalen babes-neurriari buruz. Informazioa eta artxiboak eskuragarri dituzten pertsonen zereginak eta betebeharrak zehaztea eta dokumentatzea.

- Informazioa tratatzen edo gordetzen den artxiboak, fitxategiak, ekipoak eta lekuak pertsona baimendunen esku bakarrik egotea, aurreikusitako helburu eta ahalmenetarako, eta sartu-irten guztiak identifikatzea eta erregistratzea. Euskarri informatikoak ateratzeko, fitxategiko arduradunaren baimena behar da.

- Erregistratutako datu pertsonalak zehatzak eta gaurkotuak izatea, eta euskarri informatikoko banaketak eta jakinarazpenak behar bezala babesturik egitea (datu zifratuak/enkriptatuak). Arauek ezarritako denboraldian informazioa behar bezala gordetzen dela ziurtatu behar da.

- Sistemaren intzidentzien erregistroa eramatea eta lanak jarraituko duela ziurtatzeko ordezko mekanismoak ondo ibiltzea, zerbitzariak huts egin ez gero.

- Auditoriak programatzea eta egitea sistema informatizatuari, bederen aplikazio berriari eta datu pertsonalak babesteko neurrien betetze-mailari.

- Datu pertsonalak hirugarrenei lagatzeak eta informazioa eskuratzeko eskubideek araudia errespetatzen dutela bermatzea.

5.- Informazio integrala

Informazio-sistema berriak bere barruan eraman beharko lituzke Hemoterapia Sareko zerbitzuen eta mekanismoen arteko prozesuak eta harremanak, eraginkorragoa izan dadin.

Ildo horretan, txosten honetan zehar hainbat ohar egin ditugu, E-Delphi sistema berriari sartu eta integra daitezkeen honako hauek:

- Intzidentzia-parteen erregistroa eta jarraipena.
- Emaileei buruzko HLA laborategiko datuak eta emaitzak.
- Nafarroako Hemoterapia Sare osoko stocken kudeaketa.
- Ospitaleetako prozesuak, era horretan erraza-goak izan daitezen premien programazioa, stocken kudeaketa eta trazabilitatea.
- Fakturazioaren eta kobrantzaren kudeaketa.

#### IV.10. ZELULEN ETA EHUNEN KUDEAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

– Ez dago foru planik giza erabilerarako giza zelulak eta ehunak ematea, lortzea, ebaluatzea, prozesatzea, mantentzea, biltegitratzea eta banatzea programatzen duenik.

– CTSNren bidez foru komunitatean egiten den odol-emate eta -banatzearekin gertatzen ez den bezala, Nafarroan ez dago zerbitzu publikorik zelulen eta ehunen alorrean banku-jarduerak eta -prozesuak zentralizatzen eta koordinatzen dituenik.

– Osasunbideko arduradunek nahiago izan dute premiak azaldu ahala ase, banku zentral publikorik sortu gabe. Izan ere, Nafarroako biztanleriak nahikoa masa kritikorik ez daukanez ehun batzuentzat, eskaera gero eta handiagoa denez, eta alor horietan aplikatutako teknikak etengabe aurreratzen direnez, neurritz gaineko baliabideak beharko omen lirakeke, eta/edo efizientziarik gabeko kostuak eragin.

– Horrela, hitzarmenak sinatu dituzte alor horietan erreferentziakoak diren entitate edo zentroekin, eta administrazio-baimenak eman dizkiete ospitaleei, jarduera jakin batzuk egin ahal izan ditzaten.

Ospitaleei eta ospitaleetako zerbitzuei baimenak emateko orduan, 1997an eta 1999an onartutako foru araudiari jarraitzen dio Osasun Departamentuak. Baina gerora urriaren 10eko 1277/2003 Errege Dekretua argitaratu da –osasan-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduen baimenei buruzko oinarri orokorrak ezartzen dituena oinarritzko arau moduan–, bai eta Europako Zuzentarauak eta Errege Dekretuak ere, kalitate-betekizun eta -baldintza minimoak ezartzen dituztenak.

Segurtasun juridikoagatik, foru araudia egokitu egin beharko litzateke arestian aipatutako arauetara, batik bat 1277/2003 Errege Dekretuak dioene-

ra, espresuki bil daitezen osasan-zentroen, -zerbitzuen eta -establezimenduen sailkapena, izendapenak eta zehaztapenak, eta kalitate-baldintzak bete daitezen baimenak egokitzeko eta emateko orduan.

– Lehen emandako baimenen aurreikusitako indarraldia igaro, eta ospitaleentzako 11 baimen berritu dira.

Honako arrisku hauek daude:

- Ehunen biltegiak ugaritzea eta argi ez bereiztea, batetik, berehala erabiltzekoak diren ehunak lortzeko eta biltzeko funtzioak eta, bestetik, “Ehunen Banku” baten funtzioak. Banku hori unitate tekniko bat litzateke, arduradun fakultatibo bat duena, eta bere zeregina ehunen kalitatea mantentzea eta bermatzea izanen litzateke, lortzen direnetik besteri edo norberari txertatu arte.

- Ikuskapen eta auditorien bidez behar bezala ez bermatzea baimendutako laguntza-unitateek eta unitate teknikoek betetzen ote dituzten araudiko kalitate- eta segurtasun-arauak, batik bat azaroaren 10eko 1301/2006 Errege Dekretuan datozenak.

*Hona hemen gure gomendioak:*

– *Odol-emateei eta Transfusioei buruzko Planarekin batera zelulei eta ehunei buruzko beste plan bat prestatzeko aukera aztertzea, epe ertain eta luzera jarduera- eta koordinazio-esparru argi bat edukitzeko, Osasun Departamentuaren plan estrategikoen barruan<sup>(6)</sup>.*

*Plan horien barruan, komeni litzateke ebaluatzea, halaber, zer aukera dauden osasunarentzat eta osasun-ikerketara eta -garapen teknologikoarentzat hain garrantzitsuak diren gai horietan erreferentziako Komunitate bihurtzeko. Aintzat hartzeko eta balioesteko helburuak izan daitezke inportatutako teknologia, prozedurak eta produktuak baino gehiago izatea esportatutakoak.*

– *Laguntza-unitate eta unitate tekniko guztien aldizkako ebaluazio-, ikuskapen- eta auditoria-programak bultzatzea, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.*

– VIII. eranskinean dator emandako baimenen taula laburtu bat.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapide guztiak bete ondoren.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

(6) “In situ” fiskalizazioa egiterakoan arduradunek jakinarazi digutenez, Osasun Departamentua lanean ari da Ikerketa Biomedikorako Plan Estrategiko bat onartzeko eta garatzeko, eta Ikerketa Biomedikorako Zentro bat abiarazteko.

## ERANSKINAK

I.1. ERANSKINA. CTSN-REN ORGANIGRAMA (2007-XII-31)

I.2. ERANSKINA. PLANTILLA

I.3. ERANSKINA. PLANTILLA OSOA

I.4. ERANSKINA. ODOL BANKUKO PLANTILLA ORGANIKOEN EBOLUZIOA 2002-2007 ARTEAN

I.5. ERANSKINA. ABSENTISMO-INDIZEA

I.6. ERANSKINA. PLANTILLA ORGANIKO OFIZIALEKO PLAZA HUTSAK

II.1. ERANSKINA. ODOL-EMATEA ETA ODOL-ETA HEMODERIBATU-PRODUKZIOA NAFARROAN 1993-2007AN

II.2. ERANSKINA. NAFARROAKO ODOL-ATERATZEAK 2006-2007 ARTEAN, HILABETE, MOTA ETA ZONALDEEN ARABERA

II.3. ERANSKINA. ESPAINIAKO ODOL-EMATEEI BURUZKO ESTADISTIKA

III.1. ERANSKINA. ODOL-PRODUKTUEN BANAKETA 2005-2007 ARTEAN NAFARROAN ETA NAFARROATIK KANPO

III.2. ERANSKINA. ODOL-PRODUKTUEN BANAKETA 2006-2007 ARTEAN/CTSN

III.3. ERANSKINA. HEMATIE-KONTZENTRATUAREN BANAKETA 2001-2007AN (CH)

III.4. ERANSKINA. PLASMAFERESI SEKURIZATUAREN BANAKETA 2000-2007AN (PFS)

IV. ERANSKINA. GASTUEN ETA SARREREN EBOLUZIOA

V. ERANSKINA. PROZESUEN MAPA

VI.1.A. ERANSKINA. EMAILEAK, SEXUAREN ARABERA CTSN


VI.2. ERANSKINA. ERREGISTRATUTAKO EMAILEEN EBOLUZIOA (URTEAN AKTIBOAK) 2000-2007 BITARTEAN

VII.1. ERANSKINA. CTSN LABORATEGIAREN JARDUERA: ERRUTINAKOA ETA HLA, 2001-2007 BITARTEAN

VII.2. ERANSKINA. HLA LABORATEGIAREN JARDUERA 2007AN

VIII. ERANSKINA. ZELULEN ETA EHUNEN BAIMENEN TAULA LABURTUA

I.I. ERANSKINA CTSNREN ORGANIGRAMA (2007-XII-31)



## I.2. ERANSKINA. PLANTILLA

Plantilla organikoa	2006. urtea										2007. urtea										Plantilla organikoa
	Benetako plantilla 2006-XII-31n					Benetako plantilla 2007-XII-31n					Benetako plantilla 2007-XII-31n										
2007ko plantilla	Lanpostu huts aruntak	Lanpostu hutsak erreserbarekin P/T	Langile funtzionariok eta aldi baterakoak	"Egiturazko" baterako langileak	Paiza husen ordezkariak	Paizen ordezkariak LPzrekin	Aldi baterako langileria, guztira	Benetako plantilla 2006-XII-31n	Guztira	Aldea	Lanpostu huts aruntak	Lanpostu hutsak erreserbarekin P/T	Langile funtzionariok eta aldi baterakoak	"Egiturazko" baterako langileak	Paiza husen ordezkariak	Paizen ordezkariak LPzrekin	Aldi baterako langileria, guztira	Benetako plantilla 2007-XII-31n	Guztira	Aldea	
																					2008ko plantilla
<b>Kategoriak</b>																					
	1		1				1	0				1	0				1	0			
Zuzendaria																					
OLT	15	1	2	12	6	1	8	20	5			17	5	3	10	4	2	10	20	3	
Administratza	1	0	1	1	1	1	1	0	0			1	1	1	1	1	1	1	1	0	
Administratza laguntzaileak	1	0	1	1	1	1	1	0	0			1	1	1	1	1	1	2	2	1	
Osasun-laguntzaileak	2			2			0	2	0			2		2			0	0	2	0	
Erizaintza-laguntzaileak	3	2	0	1	1	1	1	2	-1			2		2			0	0	2	0	
Zerbitzu anitzeko langileak	3	1	0	2	1	1	1	3	0			3	1	2	1	2	1	1	3	0	
BFEak/Adjuntua	3	0	2	1	1	1	1	2	-1			3	2	2	2	2	2	2	3	0	
Laguntza Ataleko Burua	1			1			0	1	0			1		1			0	0	1	0	
Laguntza Zerbitzu Burua	1			1			0	1	0			1		1			0	0	1	0	
Administratza Unitateko Burua	1			1			0	1	0			1		1			0	0	1	0	
Erizaintza Unitateko Burua	1			1			0	1	0			1		1			0	0	1	0	
Mediku laguntzailea - Medikua							2	2	2			2	2	2	2	2	1	2	3	3	
LTEak	9	5	0	4	2	5	7	11	2			12	5	1	4	7	8	12	0	0	
CTSN, Hemoterapia Unitatea, Tuter							0	0	0			2	1	1	1	1	1	2	0	0	
OLTak	2	1	0	1	1	1	0	1	-1			2	1	1	1	1	1	2	0	0	
Administratza laguntzailea	1			1			0	0	0			1		1			0	0	1	0	
Administratza	1			1			0	1	0			1		1			0	0	1	0	
BFE/Adjuntua							0	0	0								0	0	0	0	
Mediku laguntzailea							1	1	1								1	1	1	1	
<b>Plantillako postuak, guztira</b>	<b>45</b>	<b>10</b>	<b>6</b>	<b>29</b>	<b>11</b>	<b>8</b>	<b>4</b>	<b>23</b>	<b>52</b>	<b>7</b>	<b>51</b>	<b>14</b>	<b>8</b>	<b>28</b>	<b>9</b>	<b>14</b>	<b>6</b>	<b>29</b>	<b>57</b>	<b>6</b>	

**I.3. ERANSKINA. PLANTILLA OSOA**

(finko eta kontratatuen hilabeteak pertsona/urteko)

Langile finkoak lanbide-estamentuen arabera 2006-XII-31n									
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	06/01 ald.	06/05 ald.	
Fak. espezialistak	3	4	4	4	4	2	-1	-2	
Fak. ez-espezialistak	0	0	0	0	0	0	0	0	
Sanitario tituludunak	20	16	18	17	16	19	-1	3	
Sanitario titulugabeak	5	5	4	4	3	3	-2	0	
Administrariak	4	4	4	3	3	2	-2	-1	
Zerbitzu Orokorrak	3	2	2	2	2	2	-1	0	
Guztira	35	31	33	30	28	28	-7	0	

Aldi baterako kontratatutako langileak (kontratutako hilabeteak pertsona/urteko)									
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	06/01 ald.	06/05 ald.	
Fak. espezialistak	4,0	2,4	6,3	4,0	4,0	1,0	-3,0	-3,0	
Fak. ez-espezialistak	0,0	0,0	0,0	0,3	0,4	2,8	2,8	2,3	
Sanitario tituludunak	14,8	13,9	21,6	19,0	21,3	19,8	5,1	-1,5	
Sanitario titulugabeak	1,8	1,5	2,1	2,1	3,6	2,5	0,8	-1,1	
Administrariak	1,6	1,2	1,2	0,8	1,8	2,4	0,8	0,6	
Zerbitzu orokorrak	1,7	1,0	1,5	1,6	2,2	1,9	0,3	-0,3	
Guztira	23,8	20,0	32,5	27,8	33,4	30,3	6,5	-3,1	

**Odol Bankuko plantilla, guztira 2001-2006 urteak. Finkoak + egiturazkoak eta aldi baterakoak (kontratutako hilabeteak pertsona/urteko)**

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	06/01 ald.	06/05 ald.	01/06 batez beste
Fak. espezialistak	7	6	10	8	8	5	-2	-3	7,3
Fak. ez-espezialistak	0	0	0	0	1	3	3	2	0,7
Sanitario tituludunak	34	30	39	36	37	37	3	0	35,5
Sanitario titulugabeak	7	6	7	6	6	5	-2	-1	6,2
Administrariak	6	5	6	4	5	5	-1	0	5,2
Zerbitzu orokorrak	5	3	3	4	4	4	-1	0	3,8
Guztira	59	50	65	58	61	59	0	-2	58,7
Aldi baterakoek egindako lan-kargaren %	%40,4	%40,0	%50,0	%47,8	%54,8	%51,4	11	-3,4	%47

Iturria: Osasunbidearen urteko oroitidazkiak.

Kalkulu-irizpidea: Plantillaren datuak hilabetetan normalizatuta kalkulatzen dira (langile finkoen hilabeteak aktiboan + aldi baterako langileen kontratatutako hilabeteak. Ondoren, pertsona/urteko egiten da (12 hilabete aktiboan edo kontraturik, pertsona bat bezala hartzen da).

#### I.4. ERANSKINA. ODOL BANKUKO PLANTILLA ORGANIKOEN EBOLUZIOA 2002-2007 ARTEAN

Plantilla	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
<b>NAOn argitaratutako plantilla organikoa, kode organikoen arabera</b>	<b>(2001-XII-31ko plantilla)</b>	<b>(2002-XII-31ko plantilla)</b>	<b>(2003-XII-31ko plantilla)</b>	<b>(2005-IV-2ko plantilla)</b>	<b>(2005-XII-31ko plantilla)</b>	<b>(2006-XII-31ko plantilla)</b>	<b>(2007-XII-31ko plantilla)</b>
CTSNAko Zuzendaritza						1	1
Odol Bankuko Zerbitzua	38	38	5	4	4	4	6
Odol Bankuko Erizaintza Unitatea	Ez da aplikagarria		28	29	30	30	34
Odol Bankuko Kudeaketa Unitatea	Ez da aplikagarria		6	6	6	6	6
Odol Bankuko Atala	Ez da aplikagarria		1	1	1	1	1
Tuterako Hemoterapia Unitatea	6	6	4	4	4	3	3
Guztira	44	44	44	44	45	45	51
<b>NAOn argitaratutako plantilla organikoa, lanpostuen arabera</b>	<b>2001</b>	<b>2002</b>	<b>2003</b>	<b>2004</b>	<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>
Iruñeko Odol Bankua							
Zuzendaria						1	1
OLT	18	18	18	16	16	15	17
Administraria	1	1	1	1	1	1	1
Administrari laguntzailea	1	1	1	1	1	1	1
Osasun-laguntzailea	4	4	3	2	3	2	2
Erizaintzako laguntzailea	1	1	2	3	2	3	2
Zerbitzu anitzetako langilea	1	2	3	3	3	3	3
BFE/Adjuntua	2	3	4	3	3	3	3
Laguntza Ataleko Burua	1	1	1	1	1	1	1
Laguntza Zerbitzuko Burua	1	1	1	1	1	1	1
Administrazio Unitateko Burua	1	1	1	1	1	1	1
Erizaintza Unitateko Burua	1	1	1	1	1	1	1
Mediku laguntzailea - Medikua	1						2
LTEak	3	4	4	7	8	9	12
Zerbitzaria	1	1					
Langileak	1						
Tuterako Odol Bankua / Hemoterapia Unitatea							
OLTak	4	3	3	3	3	2	2
Administrari laguntzailea	1	1					
Administraria			1	1	1	1	1
BFE/Adjuntua	1	1					
Mediku laguntzailea							
Plantillako postuak, guztira	44	44	44	44	45	45	51

## I.5. ERANSKINA. ABSENTISMO-INDIZEA

Iturria: Osasunbidearen urteko oroitidazkiak. 2007ko absentismoaren datuak Kudeaketa Zuzendaritzak emanak dira, 2008-II-13an.

## Odol Bankuko absentismo-indizeak, arrazoien arabera

	06/05							Osasunbidearen eta CTSNren arteko aldea batez beste 2006an		
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007			
Gaixotasuna, l.i. eta g.p.	6,0	4,1	8,1	6,6	9,1	12,7	%40	13,9	5,9	6,8
Sindikala	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	%0	0,0	0,1	-0,1
Amatasuna	0,6	0,5	1,0	0,3	0,6	0,8	%41	1,5	0,7	0,1
Prestakuntza	0,5	0,4	0,5	0,4	0,1	0,3	%117	0,8	0,2	0,1
Greba	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	%0	0,0	0,0	0,0
Norberaren aferak	1,5	1,6	1,0	1,0	1,3	1,8	%38	1,7	1,1	0,7
Guztira	8,5	6,5	10,6	8,3	11,1	15,6	%41	17,9	8,0	7,5
EZ DAGO										
